

XVI.BASABURUKO BTT MARTXA

Probaren helburua:

Basaburua-Imozko Kirol Batzordeak, orain aurkezten den ekitaldia antolatu du.

Ez lehiakor den mendi txirrindulako martxa baten antolaketa, Basaburuako mendietan zehar, 2026ko maiatzaren 31an, igandea.

Martxa zirkular bat non ibilbide luzeak 30 kilometroko luzera eta 1.300 metroko desnibel pilatua izango duen, motzak 22 km eta 850m izango dituen bitartean.

Martxa Jauntsaratseko eskolatik abiatu eta Beruete eta Arrarats herriak zeharkatuko ditu, Jauntsaratseko polikiroldegia ren parean amaitu arte.

Lasterketaren arautegia:

- 1- **Irteera eta helmuga:** Jauntsaraseko polikiroldegitik goizeko 9.30etan, maiatzaren 31an
- 2- Aurre-izen ematea **Maiatzaren 29a** bitartean egin daiteke www.kirolprobak.com web orrian.
- 3- **Dortsalak jasotzeko** egun berean, 31an, **irteera baino lehenago, 8.00-9.00 artean.**
- 4- Ibilbide osoan zehar buru-babesa eramatea derrigorrezkoa da.
- 5- Eguraldia dela eta antolatzaileek proba honen datak aldatu edo proba bertan behera uztea erabaki dezakete.
- 6- Ibilbidea oinez naiz bizikletaz egin daitekeenez, kontu handiz ibiltzea eta antolatzaileen aginduak betetzea eskatzen da.
- 7- Izen-ematearen ordainketa egin ondoren, bakarrik proba bertan behera uzten bada itzuliko da dirua.
- 8- Proban izen-emateak istripu eta erantzukizun zibileko aseguruia darama. Kaltetun bakoitzeko gehienezkoa eta frankizia zehazteko dagoenez.
- 9- Proban parte hartzeak arautegi osoa onartzea suposatzen du: probaren gogortasunari buruz informatua egotea, eta istripuren bat edo zerbait gertatu ezker, osasun-zerbitzuei beharrezko arreta prestatzeko baimena ematea.
- 10- Proban izen emateak, irudien eskubidea lagatzea dakar, antolakuntzari baimena emanaz argazkiak edo bideoak publikatzeko edo beste batzuei uztekoa, denbora eta tokiko limitaziorik gabe, helburua ekitaldiaren promozioa edo difusioa izanik.

Probaren Fitxa teknikoa

Data: Maiatzak 31

Irteera ordua: 9:30

Abia puntua: Jauntsaratseko polikiroldegia

Distantzia: 22/30 Km.

Desnibela: 850/1.300m

Irteerako altuera: 550m.

Gehienezko altuera:

1100m.

Anoa postua: Otsola (Arrarats). Luzean (12.en eta 16.en km-etan). Motzan (8.en km-an).

Ibilbidea	Km.	Abia puntua	Irteera ordua	Federatuak	Ez Federatuak
Jauntsarats - Jauntsarats.	22/30 Km.	Polikiroldegia	9:30	25 €	25 €

Gomendioak:

- Ibilbidearen zoru gehiena lurrezkoa eta legarrezkoa den arren, lokatzezko edo gaizki egokitutako zatiak egon daitezke, aurreko egunetako eguraldiaren arabera.
- **Kasu!!!** Ibilbidean zehar errepidea gurutzatzen diren zenbait puntu daude. Nahiz eta antolatzaileak trafikoa bideratzen egon, puntu hauetan kontu handiz ibiltzea gomendatzen da.
- Dortsalak abia puntuan banatuko dira.

Zerbitzuak:

- Proban parte hartzen duten guztiek opari bat jasoko dute.
- Otsolan (Arrarats) hornidura-postu bat egonen da. Gozokiak, fruta eta edariak izango dira.
- Proban izen-emateak, **istripu eta erantzukizun zibileko aseguru**a darama, lasterketan gertatutako lesioak beteko ditu.
- **Osasun laguntza** ibilbidean zehar. Anbulantzia eta lur orotako ibilgailua.
- Proba bukatu ondoren, Jauntsarasko polikiroldegian ogitartekoak banatuko dira parte hartzaileen artean.
- Dutzak eta aldagelak Polikiroldegian.
- Txirrinduletarako garbiketa zerbitzua.

Basaburuan 2026ko Otsaila.